



Lehiarako azken txanpan

Maialen Chourraut Iurramendi eta Nahia Zudaire Borrezorekin solastu gara Parisko Olinpiar Jokoen atarian / 10-11

BAT BASQUE TEAM/BURUNTZALDEA IKT

Musikaren erabilera medizinala

Lurhats proiektua eratu dute Julen Basterrak eta Iban Nikolaik, gitarra klasikoa eta didjeridua uztartuta / 8-9

Ekainekoak izan dira hilabete bateko daturik onenak TXINTXARRI-ren atari digitalean / 2

Ricardo Rodriguez Jorgek hiru ordutan gastatu du 1.000 euroko saria, herriko zenbait saltokitan / 4

Jaialdiz jaialdi eta festaz festa, aurrera doaz Ttakun KEren udako txokoak, giro ederrean / 5

'Zazpi gurutzeak' izeneko eleberria argitaratu du Yolanda Donis Manterola herritarrek / 6

Santa Ana egun bereziaren aurrekari izan dira artisautza azoka eta pintxoan ibilbidea / 7

Santa Ana Pala txapelketako finala eta hirugarren postua jokatu duten bikoak lehiarako prest / 12

MERKEALDIA APROBETXATU!

**Abuztuan,
hilabete osoan
denda zabalik!**



multiópticas

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA
🕒 9:30 - 13:30



eskatu
hitzordua
WhatsApp
bidez

www.multiópticas.com




Aurtengo ekaina izan da hilabete oparoena

Emankorra izaten ari da amaitzear dagoen 2023-2024 ikasturtea TXINTXARRI-ren atari digitaleko trafikoa dagokionez, ia aurreko kurtsoa bezainbeste. Eduki ikusiena udalak eta eragileek sanpedroetarako prestatutako egitarauaren albisteak izan da

Txintxarri

Ikasturte amaierara bezala, TXINTXARRI aldizkariko lantaldeak bere atari digitalaren trafikoa aztertu du. Hilaren 23ra arteko zenbakiak eskuetan, esan dezake datuak erregistratzen hasi zenetik kurtso emankorrenetako bat izan dela bukatzear den hau, ia aurrekoa bezainbeste. Are, kurtsoa ixteko astebe-teren faltan –erredakzioak hila- ren 23an bidali du zenbaki hau inprentara, arratsaldean–, adieraz- laren bat iazkoa baino hobea da: 140.594 saio hasi dituzte irakurleek; 2022-2023an, 140.323.

Herri komunikabidearen sareko edukietan nabigatu duten



Joan den ikasturtean bezala, TXINTXARRI-ren atari digitalean trafikoa gehien izan duen hilabetea ekaina izan da. TXINTXARRI/FLOURISH

pertsonak 326.191 orri bisitatu dituzte hilaren 23ra arte. Joan den kurtsoan, berriz, 334.246 izan ziren. Artikuluz artikulu ibili diren erabiltzaileak 57.714 izan dira; iaz, 68.871.

Aurreko ikasturtean bezalaxe, ekaina izan da trafikoa gehien izan duen hilabetea. 12.503 erabiltzailek 62.374 orri bisitatu zituzten –kurtso osoko bisiten ia bostena, %19,1–, horretarako 26.996 saio hasita. TXINTXARRI-k hil batean inoiz erregistratu dituen datu onenak izan dira, aldeagatik gainera: 2023ko ekainean 50.889 klik erregistratu zituen orrietan, 9.166 nabigatzaile eta 21.603 sesio.

Eduki ikusienak

Ikasturteak joan eta etorri, badira ikusien artean errepikatzen duten gai batzuk, hala nola, sanpedroak eta Sorgin Jaiak, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa edota Inauteriak. Gauzak horrela, aurtengo eduki ikusiena herriko festetarako udalak eta eragileek elkarlanean prestatu zuten egitarauari buruzkoa izan da, 2.070 ikustaldirekin. Halaber, jakin-mina sortu du baita ere

udal ordezkariak jaietako kontzertu nagusiak iragartzeko egindako agerraldiak.

Zoritxarrez, hamar ikusien artean dauden artikulu guztiak ez dira atseginak eta baikorrak izan. Jaio bezala hiltzen dira herriarrak eta udalerrarekin lotura estua duten pertsonak, eta, horri lotuta, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kide Juan Luis de la Mata *Juanlu*-ren nahiz Boroblean Elkarteko sortzaileetako bat izan zen Aitziber Ugartemendiaren heriotzei buruzkoak ere oso irakurriak izan dira.

Bestalde, aurtengo nabarmena izan da herriarrek ekimen eta eragileak sortzeko duten gaitasuna: osasun publikoaren aldeko apirileko manifestazioa eta kurtsoan zehar gai ugari jorratzeko hitzaldiak aurrera eramane dituen Boroblean Elkarteen sorrera izan dira adibideetako bi.

Azkenik, TXINTXARRI-ko lantaldeak eskerrak ematen dizkie aldizkariaren irakurle finei, erakutsitako konfiantzagatik, eta baita babesleei nahiz iragarleei ere, egitasmoa sustatzeagatik.

Ikasturteko hamar eduki ikusienak



SANPEDROETAKO EGITARAUA
2.070 IKUSTALDI

Aurtengo ikasturtean ere San Pedro jaietarako udalak eta eragileek antolatutako programak piztu du irakurleen jakin-min gehien.



OSASUN PUBLIKOAREN ALDE
437 IKUSTALDI

Joan den apirilaren 12an ehunka lasarteoriar manifestatu ziren herriaren barrera, kalitatezko osasun sistema publiko bat eskatu eta aldarrikatzeko.



LOTME-KO JUANLUREN HERIOTZA
964 IKUSTALDI

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kide Juan Luis de la Mata *Juanlu*-ren heriotzak ezustean harrapatu zituen herriarrak.



BOROBILEAN ELKARTEAREN SORRERA
434 IKUSTALDI

Herriar talde batek gaurkotasuneko gaiak buruz hausnartu eta iritziak trukatzeko egitasmo bat jarri zuen abian, Boroblean Elkarteak.



SANPEDROETAKO KONTZERTUAK
726 IKUSTALDI

Programaren aurretik, udalak sanpedroetako kontzertu nagusien berri eman zuen: ETS, Bulego, Maruja Limon, Alargun Beltzak, Belako, Otxabi...



BADATOS SORGIN JAIK
418 IKUSTALDI

Ekainaren 27an hasi ziren herriko festa alternatiboak, Sorgin Jaiak. Bost egunez udalerriko kaleak sorgindu zituzten gazteek, makina bat ekimen eginda.



KROSAREN KRONIKA
640 IKUSTALDI

Dantzarien saioaren ondoren zitu bizian atera ziren rollerrak, lasterkariak eta ipar martxalariak, 26. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa egitera.



LASARTE-ORIAKO OIHANA
381 IKUSTALDI

Oihana Basotxo kazetaria eta Oihan Palmer argazkilaria kontratatu zituen TXINTXARRI-k, Lasarte-Oriako oihan koloretuari buruzko erreportajea egiteko.



AITZIBER UGARTEMENDIA GOGOAN
529 IKUSTALDI

Taldeakide izandako Aitziber Ugartemendia Zubeldia oroitzeko idatzi bat bidali zuen Boroblean Elkartek TXINTXARRI aldizkariaren erredakziora.



LASARTE-ORIA BIZIPOZEZ ZIPRIZTINTZEKO
359 IKUSTALDI

Lasarte-Oriako Bizipoza Taldeak egun osoko jai bat aurrera eramane zuen apirilaren 26an, eragile hori eta Bizipoza Eskola ezagutzera emateko.



Lasarte-Oriako Kuadrillategiko gazteek asteburupasa egin zuten Zuhatzan, Pasaia eta Lezoko gazteekin batera. TTAKUN KE

Egindakoa gutxietsi gabe, lanean jarraitu behar

Izenpetuta duten Euskara hitzarmenaren baitan, 0 eta 18 urte arteko herritarrentzat ekimen ugari aurrera eramanean dituzte aurten Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Egitasmoen arduradunekin hitz egin du TXINTXARRI-k

Txintxarri

Bukatu da ikasturtea eta indarrak berritzeko atsedean hartu aurretik baloratu egin behar da egindakoa, hurrengo kurtsoan norabide beretik jarraitu ala ez ikusteko. Ariketa hori bera egin dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak hitzartuta dituen aisialdi programetako arduradunek. Hauek izan dira aurtengo Euskara hitzarmenaren barruan aurrera eramanean dituzten ekimenak, 0 eta 18 urte arteko lasarteoriatarrei zuzendutakoak izan direnak: GurasoLeku, Amaraun, Gazte Kluba, Kuadrillategi eta Faktoria. Haur eta gazte horien aisialdia euskaraz garatu eta bi-

zitzeko, eskaintza zabal, dibertigarri eta hezitzaile bat burutu dute. Helburua, hauxe: gure udalerriko gazteek euren hizkuntza ohiturak aldatzea, hau da, euskaraz gehiago hitz egitea, aipatu proiektu horietako bakoitzak bere ezaugarriekin adin tarte jakinetan eraginda.

Gaztetxoentzako programetan, hau da, GurasoLekun, Amaraunen eta Gazte Kluban, "oso altua" izan da parte hartzea, horien arduradun Pili Bermejok azaldu duenez. Horren adibide, azkeneko programa horretako talde kopurua handitu izana, herritarren eskaerei erantzunda. Antolatutako programazioa

"ongi" gauzatu dute: "Umeekin batera prestatu dugu eta kontuan izan ditugu herriko eragile desberdinak, gure jardueretan parte hartzera gonbidatuta". Aste Santuko irteera berezia edota Inauteriak bezalako egitasmo herrikoietan parte hartu izana azpimarratu ditu Bermejok.

Esan gabe doa programen helburua euskararen erabilera bultzatzea eta areagotzea dela, haurren zein nerabeen aisialdia hizkuntza horretan garatzeaz gain. Horri dagokionean, arduradunak adierazi du Hezitzaileek Asko Egin Dezakete metodologian oinarritu direla eta dagoeneko gauzatutakoa gutxietsi gabe, asko

dagoela oraindik egiteko, kontuan izanda erabiltzaileen profilak anitzak direla, udalerrira bera bezala. Ildo horretatik, batzuen artean lagunarteko erabilera jarri dute arreta, eta, besteen artean, hizkuntza horretan lehen urratsak egiten laguntzean.

Kuadrillategi eta Faktoria



Kuadrillategin DBH mailetako nerabeek parte hartzen dute, eta Faktorian, Batxilergokoek. Programa horiek Iker Artetxek kudeatzen ditu eta kontatu du "oro har" gustura dagoela ikasurteak emandakoarekin, nahiz eta onartu duen lan asko dagoela egiteko, zenbait faktoregatik: institutueta giro erdalduna, baliabideen mugak... Kuadrillategin DBH 1. eta 2. mailetako ikasle "mordo batek" parte hartu du, 3.eko gutxiagok eta 4.eko talderik ezin izan dute sortu, nahiz eta ekimen berezi batzuetan laguntza eman duten. Datoren kurtsoa begira, erronka nagusietako bat adin tarte horretako nerabeak erakartzea izango da. Faktorian, bestalde, gazte askok parte hartu dute.

Artetxek onartu du "ardurata" daudela adin tarte horietako herritarren hizkuntza ohiturekin, gaztelania delako nagusi euskararen aurrean. Edonola ere, balioan jarri ditu Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak antolatutako ekimenak, balio izan dutelako euskararen erabilera areagotzeko: "Kuadrillategin eta Faktorian aritu diren gazteetako batzuek klik egin dute, eta, ikasturte hasieran ez bezala, elkarrekin euskaraz hitz egiteko ohitura hartu". Irailetik ekainera landutako guztiari jarraipena edo "errematea" ematen diote udalkekuekin -adinez txikiagoak

direnekin gauza bera, udako txokoen bidez; bata zein bestea euskara elkarteak antolatzen ditu-, ordura arte egindakoa sendotzeko. "Bisitatu ditut kanpaldiak eta nabaritu dut joera aldaketa, baita Faktoriako gazteekin egindako bidaian ere".

Arestian aipatutako bi programa horien berri Elemeleka egitasmo saioetan ematen diete, DBHko lau mailetako eta Batxilergoko lehenengoko ikasleei, horiek baitira parte hartzen dutenak. Euren artean euskara sustatzea da helburua, modu "jostagarri" batean. Hizkuntza hori etxetik dakartenei baliabideak ematen dizkiete erabilera indartzeko, eta, ez dakartenei, aldiz, hurbildu egiten diete, erabiltzen has daitezten. Adin tartearen arabera lau edo sei saio egiten dituzte eta horiek erabiltzen dituzte gerora Euskara Batzorde bilakatzen diren eragileak sortzeko: DBH 1. eta 2. mailakoena da bat; bestea, 3. eta 4.ekoena. Ikasturtean zehar, astero, ekimen ugari egiten dituzte: lehiaketatxoko sare sozialetan bidez, jarduerak bereziak Euskararen Egunaren edota kurtso bakoitzeko ekimen berezien (23. Korrika, aurten) hariara... Artetxeren esanetan, "baliabide oso garrantzitsuak" dira.

Kidetze proiektua ere aipatu du, duela bizpahiru urtetik martxan dagoena. Elemelekan aritzen diren gazteetatik DBHko 50 eta Batxilergoko hamar hautatzen dituzte, taldeak egin eta elkarren artean euskaraz harremandu daitezten urtariletik aurrera. "Iruditzen zaigu garrantzitsua dela gazteenen eta helduenen arteko erreferentzialtasuna lantzea". Kurtso berrira begira ekimena luzatzea eta saio gehiago egitea dira erronkak.

MAITE

ESTETIKA ARETOA

zerbitzu mistoak

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio eletrikoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Abuztu osoa zabalik betiko ordutegian!

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria



Ricardo Rodriguez sariduna (goiko ilaran, erdian), Aterpeako eta udaleko ordezkariekin. TXINTXARRI

Saria xahutzeko hiru ordu izan ditu irabazleak

Aterpea Merkatari eta Ostalarien Elkartearen 'Eskuratu 1.000 euro' kanpainak badu sariduna: Ricardo Rodriguez Jorge. Arratsalde batean gastatu ditu poltsikoratu dituen erosketa bonuak. Saltokietara joaten hasi aurretik ongi zehaztuta ekarri du ibilbidea

Txintxarri

Hiru orduan 1.000 euro gastatzea askoren ametsa izan daiteke, baina hura egikaritu dezaketenak ez dira hainbeste. Aterpeak urtero aukera bat ematen die herriko establezimenduetako bezeroei, eta zorionekoa aurten Ricardo Rodriguez Jorge mexikarra izan da. Zazpi bat hilabete daramatza herrian bizitzen

eta Santana informatika dendan bete zuen txartel irabazlea. Ordenagailua konpodu eta erosketa txiki bat egin izana errentagarri izan zaio, zalantzarik gabe.

Aterpeako Arantza Aldairen deia ezustekoa izan zen Rodriguezentzat eta ezin sinetsita Agustin Santanari deitu zion egia ote zen baieztatzeko. Poza, lotsa eta urduritasun nahaske-

ta bat nabari zitzaion ostirala arratsaldean bere saria jaso duenean. Eskuetan saltoki eta produktuen zerrenda prestatua zuen, azken zentimora arte doitu, baita noiz-nora joango zen erabakita ere. Lagungarri izan du Aterpeak jarritako kotoxe dotorea, batetik besterako bidaiak ahalik eta azkarren egiteko.

Aro berri baten lehen eguna izan behar zuena, ez da izan

Barsanti taldeak itxi du Kale Antzerkia Bultzatuz zikloa, 'LJ75' ikuskizunaren emanaldia eginda Okendo plazan

Txintxarri

Kale Antzerkia Bultzatuz egitasmoaren azken saioa izan da ostiral arratsaldean Okendo plazan. Barsanti Taldeak 'LJ75' -Lanean jarraitu 75 urtera arte antzezlanaren emanaldia egin

du, eta aulkiak bete dituzten gehienak haurrak izan badira ere, helduagoentzat aproposagoa zen istorioa.

Izan ere, ideia iraultza eta mugarrizko omen den kanpaina sozial baten aurkezpen

ekitaldia ardatz duen obra, populismoaren arriskuei buruzko komedia baita. Askatasuna, eskubideak, justizia eta antzerako kontzeptuak erabilia, gehiengoaren onura beharrean, desberdina dena baztertu, aberatsen alde egin eta berak probetxu atera besterik ez du nahiko haren defendatzaile sutsua den politikariak.

Zenbait gauza ulertuko ez bazituzten ere, barrerako aukera izan dute gaztetxoek askaritarako mokadutxoia jaso ere.



'LJ75' antzezlanaren eszenetako bat. TXINTXARRI

Saridunak egindako ibilbidea

Ricardo Rodriguez Jorgek herriko hamabi saltokitan gastatu zituen irabazitako 1.000 euroak. Hauxe da hilaren 19an egin zuen ibilbidea:

- **Fernandez Ehunak.** 135 zentimetroko koltxoiarentzako izarak, udarako nahiz negurako.
- **Tien21 Bideo Lagunak.** Magefesa markako presio eltze bat, sei litroko edukierakoa.
- **Estetica Splendor.** Ilea mozketa eta buruan emateko masaje bana.
- **Santana Informatika.** Monitore bat.
- **Gym Saito.** Hiru hilabeterako bonua.
- **Halcon Bidaiak.** Santanderrera asteburupasa.
- **Nogues jantzi denda.** Zapata eta galtza pare bana.
- **Orbela Ekodenda.** Aroma eta bitaminak.
- **Maiane Lurrindegia.** Perfumeak.
- **Marbell ile apaindegia.** Ilea mozketa bat.
- **Arkupe taberna.** Bertako produktuak kontsumitzeko 100 euroko erosketa txartel bat.
- **Buenetxea taberna-kafetegia.** Bertako produktuak kontsumitzeko 50 euroko erosketa txartel bat.

Abiatu aurretik, hori dena egiteko aukera emango zioten txartelak jaso ditu Aldairen eskutik eta talde argazkia egin dute Agustin Valdivia alkatea, Udaleko Sozioekonomia departamentuko buru Nuria Fernandez, Aterpeako lehendakari Mabel Pedreira, Agustin Santana, eta Ventanas Alcar dendako Luis Mari Carballo eta Ana Laureanorekin.

Pedreiraren esanetan, hilaren lehen hamabostaldian aurrera eramanean, urteko kanpaina "gustukoena eta parte hartzaile gehien dituen" da. Jendetzak parte hartu duela nabarmendu du, "inoiz baino txartel gehiago jaso ditugula esango nuke". Alkateak, txantxetan, zehaztu du udako eguraldi txarraren alde ona dela, "hondartzara edo joaterik ez denez,

herriko saltokietan gastatzea da aukera". Biek irabazlea zorian du dute eta gozatzea opa izan diote.



Ibilbidea errepatatzen. TXINTXARRI

**MABEL PEDREIRA:
"URTEKO KANPAINA
GUSTUKOENA ETA
PARTAIDE GEHIEN
DITUENA DA"**

Ospakizun eta festa koloretsuekin, aurrera doaz

Ttakun Kultur Elkarteko udako txokoei aurrera jarraitzen dute; horren erakusle izan dira egunotan aurrera eraman dituzten jarduerak.

HH3-4. mailako haurrak izan dira protagonistetako batzuk. Hilabeteen zehar emozioen eta koloreen gaineko lanketa egiten ari dira, eta ikasitakoa erakutsi dute, Okendo plazan, dantza eta kantuaren bitartez. Talde bakoitzak bere erakustaldia egin du lehenik, eta, horiek amaitu ostean, denek elkarrekin abestu eta dantzatu dituzte Imanol Urbietaren *Han zeuden*, eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Euri tanta*.

Horrez gain, hilabeteen zehar Atsobakar egoitzako egoiliarak, Eguneko Zentroko kideak eta langileak bisitatu dituzte. Harreman polit hori biribiltzeko koloreen festa egin dute Porrotx pailazoarekin eta Xumela koruko zuzendari Josu Txapartegi *Txapas*-ekin batera. Gogotik kantatu eta dantzatu ostean limoiondo bat landatu dute, etorkizunean fruituak eman eta Atsobakarreko lagunek zuku goxoa edan dezaten. Arbolaz gain, balore eta alor gehiago erein dituzte, hala nola, errespetua, adiskidetasuna, adinekoekiko begirunea, euskara edota natura.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Udako argazki lehiaketa egingo du TXINTXARRI-k aurten ere

Parte hartzeko azken eguna irailaren 15a izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Bi sari banatuko dituzte

Txintxarri

Udaran zehar argazki politik ateratzeko asmotan bazabiltza, irakurle, anima zaitez TXINTXARRI aldizkariak antolatu duen argazki lehiaketan parte hartzera. Zaltetan hori plaza-

ratzeaz gain sariren bat irabazi nahi baduzu, jarri izenburu bana irudiei (hiru gehienez eta originalak, hau da, zuk ateratakoak) eta bidal itzazu erredakziora irailaren 15a baino lehen. Zenbait bide dituzu horretarako: *txin-*

txarri@ttakun.eus helbide elektronikora idaztea, WhatsApp mezu bat bidaltzea 646 82 44 66 telefono zenbakira edo *www.txintxarri.eus* webgunera igotzea.

Jasotako argazki guztiak atari digitalean ikusgai jarriko dituzte lantaldeak, irakurleek ikusi eta gustukoena bozka ditzaten irailaren 16tik 22ra. Sariak hauek izango dira: epaimahaiarena, Aldika produktuen otar eder bat; eta irakurleena, Errigorako saski bat. Animatu, parte hartu eta udara on!

aldika produktu bereziak

Epaimahai saria



Aldika produktuak

Irakurle saria



Ttakun produktuak



argazki lehiaketa

lazo lehiaketako bi argazki irabazleak. TXINTXARRI

Txintxarri

Lehenengoz argitaratu du eleberrri bat Yolanda Donis Manterola (Lasarte-Oria, 1970) herritarrak. Liburuak irakurtzeko zaletasuna eta ohitura badu, baina, irakurtzea ez, beste aldea, idaztea arakatzeko irrikak bultzatuta erabaki zuen lan horri ekitea. Aitortu du, hasieran "erronka handia" izan zela, baina "oso pozik" agertu da prozesuarekin eta baita emaitzarekin ere.

Nolatan animatu zara eleberrri bat idaztera? Zerk bultzatuta?

Eleberrri hau idaztearen hazia nire buruan bizi izan da aspalditik egia esan. Barnean nuena paperera ekartzera, ohartu nintzen txukun egitekotan edonolako tresnak eskuratzeko beharrezkoa zela. Horregatik, hurrengo pausoa izan zen sormenezko idazkera lantzeko ikastaro batzuk egitea. Horiek benetan aberasgarriak izan ziren; behar nuen azken bultzada eman zidaten nire asmoari buru-belarri ekiteko.

Irakurzaletasuna dugunoi edonoz pizten zaigu beste alde hori arakatzeko irrika; idaztea.

Nolako prozesua izan da? Zenbat luzatu da denboran lan hori?

Nobela hau idazten hasi nintzenetik zazpi urte inguru igaro dira. Lehendabizi gaztelaniaz idatzi nuen, eta hainbat aldiz zuzendu eta amaitutzat eman nuenean, zenbait argitaletxetara bidali nuen, horien artean, Zaurtzeko Dakit argitaldarira.

Bertako arduradun Sabin Oregik, gaztelaniazko bertsioa irakurri eta gero, sekulako erronka bota zidan; esan zidan kontuan izanda eleberrriaren istorioa hemen, Euskal Herrian kokatua dagoela, eta ni ere euskalduna naizela, ea zergatik ez nuen euskaraz berridazten. Horrela, pasa den udan erronka horri ekin nion.

Eleberrria nik neuk berridatzi dut, jakin gabe emaitza nolakoa izango zen, euskaraz idazten nuen lehen aldiz baitzen. Zorionez, hemen dago emaitza.

Eta idazten hasi aurreko lanak, nolakoak dira?

Idazten hasi aurretik egin behar den informazio eta datu bilketa hori lan guztiz hezigarri eta aberasgarria iruditzen zaidala azpimarratu nahi nuke, asko gozatzen baitut prozesu horretan. **Orain proiektua eskuarteaz duzula, zer sentsazio duzu azken emaitzarekin?**



Yolanda Donis Manterola lasarteoriatarra da 'Zazpi gurutzeak' eleberrriaren idazlea. YOLANDA DONIS

"Erronka handia izan da, baina uste baino hobeto eraman dut"

YOLANDA DONIS MANTEROLA IDAZLEA

Zazpi urteko lanaren emaitza da 'Zazpi gurutzeak' eleberrria. Hasieran, gaztelaniaz idatzi zuen kontakizuna; hori euskarara ekarri, orain bi hilabete kaleratu du bere lehen nobela

Oso pozik nago, oso sentsazio onak ditut.

Eta prozesuarekin ere pozik? Egon al da momenturik 'ur handiegitan sartu naiz' pentsatu duzunik?

Prozesu oso polita izan da. Erronka oso handia izan zen, baina uste baino hobeto eraman dut.

Sinestezina egiten zait, oraindik ere. Lehen alea esku artean izan nuenean sekulako poza sentitu nuen. Gainera, eskertzekoak dira, alde batetik Sabinen kon-

fiantza, editore moduan, eta Josebaren pazientzia, zuzenketaren arduraduna izan baita. Eta bestetik, Rakelen eskuzabaltasuna eleberrriaren sarrera bikaina moldatzeagatik, eta Ainararen, hau da, nire alabaren sormen lana, eleberrriaren azala guztiz ikusgarria lortzeagatik. Azken finean, proiektu hau denen artean borobildu baitugu.

Zer nolako erantzuna izaten ari da? Jaso duzu feedbackik?

Nik uste goizegi dela hortaz hitz egiteko, bi hilabete eskas baino ez baitira igaro kaleratu nuenetik. Dena den, esango dizut Zaurtzeko azokan estreinatu zela lehen aldiz, eta espero baino ale gehiago saldu ziren. Gauza bera gertatu zen Ziburuko azokan; hantxe ere izan ginen eta niretzako esperientzia oso berria izan zen, benetan aberasgarria.

Idazle berria eta ezezaguna naizela kontuan izanda, oso po-

ziki nago. Gainerakoan, denbora kontua izango da.

Anne da protagonista, eta, oker ez banago, bere inguruan kokatzen da eleberrria. Spoiler handiegirik egin gabe, kontatu diezagukezu zer topatuko duen irakurleak 'Zazpi gurutzeak' eleberrrian?

Istorioak bi denbora lerro ditu, eta horietako bakoitzak bere protagonista. Ane da protagonista, baina ez bakarria, bestea bere ama baita.

Batak 60. Hamarkadan Euskal Herriko Idaho-ra (AEB) alde egiten du, eta ia mende erdi geroago, alabak kontrako bidaia egingo du iraganaz arakatzeko beharrez bultzatuta. Pentsa, urrutian jaiotako kaleko gazte batek baserri eta landa inguruko mundu ezezagun batean biziko dituen abenturak ez dira makalak izango, ezta tartean aurkitzen duen guztia ere.

Kontakizun horrek izango du nolabaiteko loturarik izenburuarekin, ezta?

Bai, noski. Annek aurkitzen dituen arrastoak edo izenburuarekin lotuta daude.

Asmatutako kontakizun bat da, edo benetako gertakizunetan oinarrituta dago?

Asmatutakoa da, bai. Halere, nire arbasoen izenen bat edo beste erabili dut, eta aitona-amonaren baserrien izenak, adibidez, abizen bihurtu ditut eleberrian.

Horrez gain, istorioaren parte batzuk Aia eta Laurgain inguruan kokatu ditut; azken finean nire amonaren baserria Laurgainen zegoelako.

Beraz kontakizuna asmatutakoa izan arren, zure arbaso eta familiarri ere keinu batzuk egiten dizkio.

Bai, hori da. Amarekin izandako elkarrizketetan, garai haietako oroitzapen eta ohiturak bildu ditut. Gainerakoan ez, nire irudimenaren eta dokumentazio lan zabalaren emaitza da.

Euskarazko bertsioa kalean dago, baina elkarrizketaren hasieran aipatu duzu lehenago gaztelaniazkoa idatzi zenuela. Hori, ordea, momentuz ez da argitaratu. Bazu horretarako asmorik?

Asmoak hor jarraitzen du, euskaraz ez dakiten lankide eta lagun mordoa gaztelaniaz kaleratzeko zain daudelako. Nik hala izatea espero dut, denbora kontua izango da nik uste. Horretarako ilusioa badut.



Goizean zein arratsaldean herritar ugari ibili ziren azokako postuetan. TXINTXARRI



Gaztetxoek azokako tailerretan parte hartu zuten. TXINTXARRI

Pintxoak eta azoka, aurretik

Santa Ana egunaren aurreko igandean aurrera eramán dituzte artisautza azoka eta pintxo ibilbidea. Ekimen batean zein bestean parte hartu dute dozenaka herritarrek eta parte hartzaileak pozik daude euren lanak izan duen harrerarekin

Maitane Aldanondo

Hilaren 21a udako egun eguzkitsua izan ez bazen ere, Santa Ana azokako postuetan barrena ibiltzeko aproposa izan zen igandea. Goizean zehar Okendo plazan batetik bestera zebiltzan herritarrek ikusi besterik ez zegoen.

Santa Ana Eguna lasarteoriatarrentzat esanguratsua den data da, eta ohi bezala, gaurko (hilak 26) ospakizunen aurreko igandean merkatu berezia aurrera eramán zuten. Ia lau mende urratu ditu Artisautza Azoka Tradizionalak, 39.a da, eta azken urteetako eskema bera izan zuen, bi gunetan antolatu baitzituzten salgaiak. Okendo plazako erakusmahaietan askotariko ondasunak zeuden: bitxiak, telazko poltsak, txalapartak, oinetakoak, arropa, ukenduak landareak... Mercero plazan, berriz, jatekoak ziren nagusi: gazta, ezti, hestekiak, ogia, go-

zoak... Eta bien artean, arkupeetan, ehoziri lanetan aritu zen emakume talde bat eta egurra lantzen zenbait zurgin.

Zabalgune nagusian bi lauki osatu zituzten postuek bira bakarrean dena ikusteko aukera emanez. Hori jende andana gauza bera egiten ariko ez balitz, noski... Mahaietan begira aritzeko denbora hartu zuten herritarrek, baita saltzaileekin mintzatzeko ere. Izan ere, salerosketaz harago, ofizioen berri izatea ere bada azoka honek ahalbidetzen duena. Egileei galderak egin, zalantzak argitu, produktuen xehetasuna ezagutu edota ekoizteko moduen berri izan. Esaterako, postuan zituen saskietako batzuk TXINTXARRIekin eginak direla azaldu zuen arduradunak.

Horrez gain, haurrentzako tailerretan patata tortilla, argizari kandelak edo panpinak egi-

ten ikasteko aukera izan zuten partaideek. Horiek ere jakin-mina piztu zuten eta gaztetxoek adi-adi jarraitu zituzten emandako argibideak beraien sorkuntzak gauzatzeko.

Mokaduz mokadu, bidea

Aterpea Merkataria eta Ostalarien Elkartek pintxo egitasmoa burutu zuen azokaren egun berean. Iaz bezala, bost tabernak parte hartu zuten, nahiz eta ez diren berak izan: El Punto, Hiru Aldeta, Buenetxea, Herriko Etxea eta Arima. Guztiek bakailaoa eta piperra erabili behar zituzten osagai nagusi moduan eta 3 eurotan dastatzeko eman lasarteoriarrei. Egun horretan bakarrik izan zute horretarako aukera, eta TXINTXARRI izan zen lau tabernetan, behintzat, herritarrek lehen orduetik animatu ziren pintxoak jatera.



El Puntón jan zutena: bakailao konfitatua, piper berde eta ogi txigortuarekin. TXINTXARRI



Bakailao, barazki eta piperrarekin betetako krepeak eman zituzten Hiru Aldetan. TXINTXARRI

Ohiko eskaintzaren parte den pintxoak Santa Anako zapi gorriaren gainean jarrita nabarmendu zuten egun horretan Buenetxoek. Jabeetako bat den Jose Maria Marinek azaldu zuen bakailaoa, piper gorria zein berdea eta pikillo saltsa dituela osagai euren elaborazioak. Modu batera edo bestera, hamar urte darabate eskaintzen.

Eguerdirako eginda zituen pintxoak zitzu bizian amaitu zitzaizkion El Puntoko zerbitzari Juanjo Quesadari. Arrakasta aztertuko dutela adierazi zuen. "Pizgarri" iruditzen zaizkio halako ekimenak. Errezeta, hauxe:

bakailao konfitatua, piper berdea gainean eta ogi txigortua azpian.

Herriko Etxeako sukaldari Javier Penas pozik zegoen presatutako pintxoak izandako harrerarekin: "Jan dutenei gustatu zaie". Wonton pastarekin egin-dako ravioliak prestatu zituen, piperrada eta bakailaoz beteak, saltsa berdean.

Hiru Aldetakoak bigarren urtez animatu dira parte hartzera. Eduardo Etxeberria jabea: "Emazteak erabaki du pintxoak bakailao, barazki eta piperrarekin betetako krepeak izatea". Bezeroen erantzuna ikusita, jakia eguneroko eskaintzaren parte egitea baloratuko dute.

"Gure artean ez badugu elkar sendatzen, nork egingo du?"

JULEN BASTERRA ETA IBAN NIKOLAI LURHATS TALDEKO KIDEAK

'Sendagai' izena du gitarra klasikoa eta didjeridua uztartzen dituen bikotearen lehen diskoak. Zuzenean defendatzen ari dira orain eta musika sortzen jarraitzeko asmoa dute

Iñigo Gonzalez Sarobe

Musika medizina dela aldarrikatzen dute Lurhats proiektuaren sortzaileek, Julen Basterrak eta Iban Nikolaik. "Esanahi asko ditu gaur egun baina zeharo medizinala zen hasierako erabilera eta hori berreskuratu nahi dugu, egiten dugun musikaren bitartez". Iaz ezagutu zuten elkar eta berehala garatu zuten harreman bai musikal bai pertsonal emankorra. Horren adibide, bien elkarlanak emandako fruitua: *Sendagai* izeneko diskoa argitaratu dute berriki eta sei zuzeneko emanaldi egin dituzte dagoeneko.

Basterra eta Nikolai gure herriko Gaztelekuan elkartzen dira entseatu eta esperimintatzeko. Saio baten aurretik bildu da TXINTXARRI biek, martxan jarri duten egitasmoari buruz gehiago jakiteko.

Tolosan egin zuten 'Sendagai' lanaren "aurkezpen ofiziala" hilaren 15ean. Zer moduz joan zen kontzertua?

Julen Basterra: Oso ongi. Kultur gileak asko zaintzen dituen toki batean jo genuen, 3 Tabernan. Aukera polita izan zen eta tentsazio onekin bukatu nuen.

Iban Nikolai: Ni ere gustura geratu nintzen, egia esan. Gertuko emanaldia izan zen. Aurkezpen ofiziala beharrean, "desofiziala" izan zela esango nuke. Guregandik gertu dagoen jendearentzat festatxo bat egin

genuen, orain arte eman diguten laguntza eskertzeko. Kale-ratu berri dugu diskoa eta denborarik apenas izan dugu entzuleei erakusteko. Areto handiagoetan jo nahi dugu urritik aurrera, lekuak begiratzeko ari gara. Aurkezpen "ofiziala" horrelako toki batean egin nahi dugu. Aproposa izan daiteke, adibidez, Hendaian dagoen Borderline Fabrika.

Tolosakoaz gain beste bost kontzertu eman dituzue. Horiekin ere gustura geratu zarete?

J.B.: Orain arteko tentsazio onek Jalgin eman genuenean izan ditugu. Gogoratzen naiz esan zenuenaz, Iban: "Loratu da diskoa". Kontestu desberdinetan jo dugu orain arte; naturan, gehienbat. Araban, Nafarroan eta Kantabriar izan gara.

I.N.: Jalgiko emanaldiak balio izan digu bidea zein den ikusteko: tokia itxia zen eta soinu oso ona. Gainerako emanaldietan, egia esan, zapore gazi-gozaarekin geratu naiz. Emanaldi hauek horretarako dira, egin duguna mahai gainean jarri eta jarraitu nahi dugun norabidea aurkitzeko.

J.B.: Gainera, egiten duguna zuzeneko emanaldietan defendatzea ez da erraza: gitarra klasikoa eta didjeridua uztartzen ditugu.

I.N.: Kontzertu biribila ez dugu oraindik jo. Norabide horretan, konfiantza hartzen ari gara pixkanaka-pixkanaka. Ongi pasa-

tzeko elkartu gara eta horretan jarraitu behar dugu.

J.B.: Jendaurrean jotzen dugula ahaztu gabe, beraien espektatibak betetzeak ez gaitu itsutu behar. Galbidea iruditzen zait hori. **Hasierako urratsak egiten ari zarete oraindik, beraz. Eta nolakoak izan ziren hasiera horren hastapenak, Julen eta Iban? Noiz eta nola ezagutu zenuen elkar?**

J.B.: Marruma Kulturalak egitasmoaren bitartez ezagutu nuen Iban. Iazko apirillean gonbidatu ninduten beraiek aurrera eramaten duten podcastera eta nora nindoan jakiteko, Ibanekin grabatu zuten kapitulua entzun nuen, 2022ko azarokoa; arreta deitu zidan. Didjeridu bat nuen etxean hautsa hartzen eta berarekin ikasten hastea erabaki nuen, eskolak ematen dituelako. Hilabete batzuk geroago, musi-

"ORAINDIK EZ DUGU JO KONTZERTU BIRIBILA; KONFIANTZA HARTZEN ARI GARA PIXKANAKA"

"GIZAKIAK LOTURA GALDU DU NATURAREKIN; HORI BERRESKURATZEA DA GURE NORABIDEA"

karen alorrean bikote izaten bukatu dugu.

I.N.: Hasieratik konektatu dugu, musikalki eta pertsonalki. Ezer planteatu gabe ekin genion lanari eta berehala ikusi genuen erraza zela bion arteko dinamika, harreman polita sortu dugu. Hori iruditzen zait garrantzitsuena proiektu bati ekiteko: erlazio ona izanda, beste guztia atzetik etortzen da.

Gitarra klasikoa eta didjeridua. Ez da oso ohikoa bi instrumentu horiek uztartzen dituen proiektu bat mar-txan jartzea, ezta?

I.N.: Instrumentu horiekin kone-xio berezia dugu, baita naturarekin nahiz osasunarekin ere.

J.B.: Horri buruz hitz egin nahi nuen. Sustraia, jatorria da didjeridua: entzuten duzunean bi-bratu egiten du gorputzak. Gitarra, berriz, sentimendu horren nostalgia da. Bi instrumentuak uztartzeak oso ongi adierazten du gaur egungo egoera zein den: naturarekin harremana galdu duen gizarte bat, deskonektatu egin dena. Lotura hori berreskuratzeko da gure norabidea.

Horregatik jarri diozue 'Sendagai' izena zuen lehenengo diskoari?

I.N.: Ez edozeinek, baina, oro har, soinuak sendatu egiten du, hasiera-hasieratik. Intentzio horrekin egin dugu diskoa. Egia da batzuetan pentsatzen dudala zertxobait handiustekoa izan daitekeela hori: 'Sendatzera gatoz'. **J.B.:** Bai, baina tira, hori da musikaren jatorrizko esanahia. Ez gara ezer asmatzen ari, ez gara flipatzen ari. Gure nahia da erabilera medizinal hori berreskuratzeko egiten ditugun kantuen bitartez, entzuleak eta gu geu sendatzeko. Hori da asmoa.

I.N.: Oso argi dugu gure osasuna ez dugula besteen eskuetan uzten, baizik eta guk geuk lantzen dugula. Aktiboak gara zentzu horretan, ez pasiboak. Izan ere, gure artean ez badugu elkar sendatzen, nork egingo du?

Lurhats izena nondik dator?

I.N.: Ebraieratik datorren hitz batek arreta deitu zidan: *ruach*. Hatsa, arnasa esan nahi du. Kasualitatez edo kausalitatez, euskaraz esanahi bera du *hats* hitzak eta Juleni komentatu nion. Euskaratu egin genuen terminoa eta *lurhats* atera zitzaigun, lur-raren hatsa. Hori da gizarteak behar duena.

J.B.: Pila bat gustatu zitzaidan *lurhats* hitza, indar handia du. Horrez gain, gizakia hori bera



'Sendagai'-ren azala . LURHATS

Aurkezpena, gatazka eta konponbidea

Lurhats taldeak Oiarzungo Lezoti estudioan grabatu zuen *Sendagai* diskoa, iazko azaroan hasi eta aurtengo maiatzera. Zortzi abestik osatzen dute albuma:

1. *Amets Senti*
2. *Lurhats*
3. *Purify Yourself*
4. *Izadi Zauritu*
5. *Tirano*
6. *Ahots Nirea*
7. *Elementuak*
8. *Orainlaria*

Egileek azaldu dutenez, lehen bi kantuek Lurhats aurkezten dute, hurrengo lauek gatazka bat planteatu eta, azkeneko biek, horren konponbidea.



da, hatsa duen lurreko izaki bat; ezin dugu ahaztu bertatik datorrela. Gure musikaren bidez adierazi nahi dugu bertara itzuli behar dugula, gure benetako izaerara.

Kaleratu duzuen diskoa kontzeptuala da ala zortzi abestietako bakoitzak istorio bana kontatzen du?

J.B.: Kontzeptuala dela esango nuke. Aurreneko bi abestiekin aurkezten dugu Lurhats zer den; erdiko lauekin, gatazka bat planteatzen dugu; eta azkeneko biak konfliktu horren konponbidea



Urritik aurrera areto handiagoetan jotzeko asmoa dute Nikolai eta Basterrak. Tokiak begiratzen ari dira. TXINTXARRI

dira, naturara baikortasunez eta integratuta itzul gaitzen.

I.N.: Abesti guztiek ildo komun bat duten arren, egia da horietako bakoitza independentea dela.

J.B.: Lan oso experimental da. Mundu bat da abesti bakoitza baina istorio koherente bat osatzen dute guztiek.

Musikarekin bakarrik ez, hizkuntzarekin ere jolastu duzue zenbait abestitan. Adibidez, 'Amets Senti'-n eta 'Orainlaria'-n.

J.B.: Hitz jokoak egin ditugu bi kantu horietan. *Amets Senti* batekin hasten dugu eguna, bizi nahi dugun mundua, bakoitzak amesten duenaren ilusioarekin. *Orainlaria*-n, berriz, adierazi nahi dugu oraina dela bizi dezakegun unea, ameslariak izanda ere.

I.N.: Sendatzeko prozesuaren parte da ikasgai hori: gizakiak asmatutako zerbait da denbora, existitzen ez dena; fikzio bat.

Iraganik ez dago, etorkizunik ere ez; oraina besterik ez.

Sendatzekoaz gain, hausnartzeko ariketa ere proposatzen duzue 'Sendagai'-rekin?

I.N.: Hori da. Hausnartzeko eta kontzientzia hartzeko diskoa da.

J.B.: Horregatik dituzte hitzak abestiek. Orain arte lan instrumentalak egin izan ditugu bakarka.

Diskoa egiteko prozesua nolakoa izan da?

J.B.: Abestiak, gehienbat, herriko Gaztelekuan konposatu genituen iazko irailtik azarora. Ondoren, Oiartzungo Lezoti estudioan aritu ginen Gorka Irastorzaren gidaritzapean, maiatzera arte.

I.N.: Estudioan bi astetan egin behar genuena zenbait hilabeteen ondu dugu azkenean. Horrek aukera eman digu patxadaz lan egiteko, opari handi bat izan da guretzat.

J.B.: Sekulako oparia izan da, bai. Abestiak ongi gorpuztu, diskora kolaboratzaileak [Ivan Gulin, Joseba Loinaz eta Fatimetu] ekarri, abestiei buelta batzuk eman eta soinuekin gehiago esperimentatu ahal izan dugu. Horrez gain, ahotsa sakonki

"DISKOA ESTUDIOAN PATXADAZ LANDU AHAL IZATEA OPARI HANDI BAT IZAN DA GURETZAT"

"GUK EZ DITUGU INSTRUMENTUAK AUKERATZEN, HAIK HAUTATZEN GAITUZTE GU"

lantzeko astia ere izan dut hila-beteotan.

I.N.: Pazientzia izan dugu ariketa experimental egiteko. Gure sendagaia izan da gauzak lasai eta presarik gabe hartzea. Hala ere, aldi berean, gure buruek martxan jarraitzen dute beti, lanean...

J.B.: Etorkizuneko oraina ona izan dadin, gaur bertan egin behar dugu lan.

Nola irudikatzen duzue "etorkizuneko orain" hori?

I.N.: Ni, behintzat, bigarren diskoan pentsatzen ari naiz.

J.B.: Nik ere badut ideia hori buruan, Iban! Horretarako, sortzen jarraitu behar dugu.

I.N.: Hazia izan da lehenengo lan hau eta gauza gehiago ekarriko ditu. Hitz egiteko dugu zein norabide hartuko dugun. Batetik, gure ikuskizuna dugu, bikotearena; bestetik, Monkyman DJarekin [Josu Buldain] batera gauza berriak sortzen ari gara. Momentuz bi alor horiek lantzen ari gara. Iru-ditzen zait proiektu ireki bat dela gurea, gauza bizi bat. Sare polit bat sortzen ari gara, jendea gero eta gehiago konekta dadin gure musikarekin: osasuna izango da hori. Gaur egungo gizarte ereduak sustatzen duenaren justu kontrakoa egiten ari gara.

Iban, noiz eta nolatan hasi zinen didjeridua jotzen?

I.N.: Euskal Herrian ezohiko instrumentua da. Haizezkoa da, mota horretako lehenengoetarikoa, termitek naturalki hustutako eukalipto enborretan jotzen eta hoguei bat eskolak ematen. Zazpi bakarkako disko kaleratu ditut eta talde dezenterekin kolaboratu dut.

Jamiroquai taldea entzun bitartean konexio berezia sentitu nuen didjeriduekin. Londretera joan nintzen arrebaren bisitatzera eta kontzertu batean, instrumentua ikusi nuenean, pentsatu nuen: 'Hau gustatzen zait'. Urtebetetzetarako banbuzko bat oparitu zidaten eta orduan hasi nintzen jotzeko teknika ikasten: arnasketa zirkularra, eta abar. Ondoren, Australiara joan nintzen, jatorriaren berri izatera. Mundu osoan ibili naiz jotzen eta irakasten; opari bat da.

Jalgiko kontzertuan didjeridu bat baino gehiago erabili zenuen. Guztiak ez dira berdinak?

I.N.: Normalean 1,20-1,50 metro artean neurtzen dute, baina bi eta hiru metrora artekoak ere badau-

de. Jatorrizko didjeriduak nota bakarra ematen du eta hortik abiatuta soinu gehiago sor ditzakezu. Badago beste mota bat, didjeribone izenekoa, teleskopikoa dena eta nota bat baino gehiago ematen duena.

Nota bakarra eman ohi dute-lako, didjeriduek ederki ezkontzen dute instrumentu melodikoekin; gitarra klasikoarekin, adibidez. Horrelako harreman musikalak eta fisikoak sortzen jarraitu behar dugu.

Julen, kontatu duzunean Iban nola ezagutu zenuen, aipatu duzu didjeridu bat zenuela itxean, hautsa pilatzen. Nolatan iritsi zen instrumentu hori zure etxera?

J.B.: Esango nuke izan nuela didjeriduaren nire dei propioa: musikaren bidez naturarekin konektatzeko beharra sentitu nuen. Erakarri ninduen instrumentu horren soinuak; gitarra ez zen nahikoa. Azken hori polita eta berezia da, baina oso nostalgikoa ere bai. Niretzat, didjeriduak jatorria eta sustraia irudikatzen ditu eta hori jotzen ikasteko erronka jarri nion nire buruari, Ibanekin eskoletara joanda. Oraindik ez dut ikasi, baina, gutxienez, nire sormen lanean txertatu ahal izan dut. Opari bat izan da horrenbeste urte daramatzen musikari batekin elkartu eta esperimendatzen hasia. Oraindik oso gutxi esploratu dugu.

I.N.: Niretzat ere opari bat izan da, bai.

J.B.: Lortuko dut noizbait didjeridua jotzea!

I.N.: Bada nik gitarra jotzea, ez dut uste. Askok kostatzen zait instrumentu berriei hastea; barruraino sartu zitzaidan didjeridua. Esaldi polit batek dio guk ez ditugula instrumentuak aukeratzen, haiek hautatzen gaituztelagu. Horri lotuta, Lurhatsen ardatza gitarra klasiko eta didjeridua badira ere, beste tresna batzuk ekarri ditugu diskora: pianoa, biolontxelo, danborra, flauta...

Diskoa eskuratu nahi duenak non eros dezake?

J.B.: Salgai dago eta interesa duena gurekin harremanetan jar daiteke @lurhats Instagram kontura edota nikodidge@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

I.N.: Amaitzeko, nabarmendu nahi dut gustatuko litzaigukeela zigilu edo ekoiztetxeren batekin harremanetan jartzea. Laguntza behar dugu proiektua mugitzeko.



Maialen Chourraut lurramendi herritarra, Krakoviako Munduko kopako proban lehian. BAT BASQUE TEAM



"Lanaren gehiengoa egin dugu; azkena ematea falta da"

MAIALEN CHOURRAUT IURRAMENDI PIRAGUISTA

Azken hiru Olinpiar Jokoetan podiumera igo ostean, Parisen ur bizietako bi probatan lehiatuko da: K1 eta Kayak kros. Dominen gakoa nabigazioan egongo dela uste du

Nerea Eizagirre

Londresen brontzea, Rio De Janeiro urrea eta Tokion brontzea jantzi ditu Maialen Chourraut Iurramendi (Lasarte-Oria, 1983) piraguietak. Parisoak bosgarren Olinpiar Jokoak ditu, baina lehenengoko urduritasun puntu berdinarekin doa lehiatzera. Aurten bi proba borrokatuko ditu -K1 eta Kayak krosa- eta bere onena emateko prest dago.

Egun batzuk geratzen dira Parisen Olinpiar Jokoetan lehiatzeko. Urduri zaude?

Urduritasuna beti dago hor eta eguna gero eta gertuago egon, ezinegona gehiago azaleratzen da. Horrelako proba batean, lehiaketan onena eman nahi duzunean, tentsio hori eskatzen da eta beti dut lagun nirekin.

"NIRE HELBURUA NABIGAZIO ONENA EGITEA IZANGO DA ETA HORREN BILA JOANGO NAIZ"

Ez dut maletatik ateratzeko lanik egiten, badakit beti datorrela nirekin.

Aurrera egiten laguntzen dizu urduritasun horrek?

Lehiatzerakoan oso bizi sentitzen gara eta urduritasun hori faktore handi bat da. Sentsazioa handia da eta tentsio horrek askotan gustuko ez ditugun gauzak ekartzen dizkigu gogora, baina kudeatzen jakin behar da. Eta tentsio hori ez datorrenean, argi dago zerbait ongi ez dabilela.

Tokioko Olinpiar Jokoak amaitzean, zer egin pentsatu behar izan zenuen...

Tokioko eta gero ez nekien zer egin, denboratxo bat hartu nuen erabakia hartzeko eta ez nuen denbora asko behar izan jarraitu nahi nuela jakiteko eta Parisi aukera bat eman nahi niola, saiatu nahi nuela bertara iristen.

Hiru urteko zikloa izan da aurtengoa. Nola joan da?

Beste ziklo olinpiko bat izan da. Lan asko egin eta gero. Sorbaldako ebakuntza baten ondoren. 2021 urte bukaeran ikusi genuen, Parisera ez nintzela iritsiko nengoen bezala. Gorpuzta konpondu behar nuela eta operatzeko aurrerapausoa eman genuen. Dena ongi joan zen eta hemen gaude azken txanpan. Azken astean eta azken prestakuntzetan sartuta.

Lehia handia izan duzu, bai, tokia lortu eta zure izena jartzeko.

Toki olinpikoa lortzea gogorra izaten da, beti dago lehia handia eta batez ere, aukeraketa probetan.

Etxeko kanaletan jokatzeko direnean gauza oso estu joaten da eta hasieratik genekien hori. Kanalak (La Seu eta Paue) ongi prestatzera bideratu genuen lana. Bagenekien lehia berdindua izango zela eta horrela izan zen. Azkenean tokiari nire izena jartzea lortu genuen eta orain azken txanpa geratzen da.

Lanaren gehiengoa egin dugu, baina azkena ematea besterik ez da falta. Lan txukunena egin nahi dugu eta hiru urte horietan egin dugun guztia egun horietan, hilaren 27an eta 28an, nire errendimendurik onena emateko izan da. Lan handia izan da eta ez gara lokartu behar. Azkeneko momentura arte onena eman behar dut.

Beti esan ohi duzu lehiaketetan pausoz pauso joan behar dela, Parisen ere berdinduz izango da, ezta?

Bai, argi dago. Pausoz pauso joan behar da, egunetik egunera. Ezin dugu 28koa prestatu 27koa gainditu gabe. Lehenengo sailkapen proba pasa beharra dago. Hori lortuz gero 28an finalerdiak eta finala.

Final horretan guztiok egon nahi dugu, baina azken aukeraketa hori zorrotza da. Saiatuko gara iristen eta finalean egoten. Behin horretara iritsita jokatzeko besterik ez da geratzen. Horretarako, aipatu modura, pausoz pauso joan behar da.

Baina K1ekoa ez da prestatzen ari naizen lehiaketa bakarra: Kayak kroseko lehia ere badut

abuztuaren 2tik aurrera eta hori ere pausoz pausoko lehiaketa da.

Erlojupeko batekin hasiko da eta gero lauko lehiak izango dira. Horietan jaitzieraz jaitziera joan behar da. Lehenengo bi postuetan geratuz gero txanda gainditzen duzu eta horrela finaleraino.

Momentukoa bizitzea oso garrantzitsua da eta aurretik ongi prestatzea. Eta erabakiak ere garrantzitsuak dira, ahalik eta zuzenenak izatea espero dut.

Kayak krosa aipatu duzu, erronka berria izan da zuretzat.

Beno, erronka berria edo aukera berria. Sekulako plazera da Olinpiar Joko batzuetara joan eta bi lehiaketetan parte hartzeko aukera izatea.

Prestakuntza ere polita izaten ari da; egun batzuetan eslalom egitea tokatzen da gehiago eta besteetan, kayak krosa. Dena aldatzen da. Ontzia, pala, segurtasun ekipamendua eta teknika. Hori ere pittin bat aldatzen da. Ibiltzeko modua. Erronka bat da teknika berri horiek ikastea eta hor egotea. Egia esan asko gozatzen ari naiz prozesu horretaz.

Bi probetan Jessica Fox izango da favoritoa. Nola ikusten duzu lehia?

Jessica Fox beti izango da favoritoa. Duen maila estratosferikoa da. Fox eta Ricarda Funk izugarri ari dira eta gero badago beste 15-20 palista multzo bat ere nabigazio maila altua dutenak.

Entrenamenduetan ikusi dugu Zwolinska poloniarra punta-puntan dabilela eta Vinet frantsesa, Esloveniarrak, baita ingelesak ere, italiarrak. Hor beti dago jende asko ongi dabilena. Bakoitzak bere ibiltzeko modua eta estiloa du.

Baina garrantzitsua da, lehiaren egunean guztiak egoera berdinetik hasten garela. Irteeran inork ez du ez ukitu, ez penalizazio edo nabigazio ona. Denak zerotik hasten gara eta egun horretan onenen ibiltzea lortzen duenak, egoera hobeto kudeatzen duenak, horrek eramango du saria. Nire helburua nabigazio onena egitea izango da eta horren bila joango naiz. Horretan gabiltza eta horretan zentratzen gara lehia eta entrenamendu saio guztietan.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus-en

Nerea Eizagirre

Nahia Zudaire Borrezo (Zubieta, 2004) igerilaria Parisko Paralinpiar jokoetan izango da. Zubietako gaztearentzat bigarren jokoak izango dira. Nanterre-ko (Frantzia) La Defense Arenan lehiatuko da abuztu amaieran, zehazki 4x100 m. libre erreleboa, 200 m. lau estilo, 100 m. bular eta 400 m. libre probetan parte hartuko du. Euskal Herriko txapelketan parte hartu ostean, Sierra Nevada hiruraste egingo ditu lanean Parisko hitzordua prestatzeko.

Ziklo motza izan duzue Paralinpiar jokoak prestatzeko. Nola joan da prestaketa?

Ez da ziklo motza izan. Egia esan, Tokio prestatu nuenetz lau urte izan dira berez. Ez dugu urte bat eta hiru urtetan banatu, lau urte jarraian izan dira.

Eta ondo joan da prestaketa. Kirolari eta pertsona bezala ere asko aldatu naiz. 17 urte nituen Tokion eta Parisera 20 ditut. Hiru urte gutxi direla dirudien arren, kirolari bezala esperientziak irabazten zoaz. Pertsona bezala ere, Batxilergo Unibertsitatera pasa naiz edo beste jarduerak batzuetara eta azkenean salto hori egiteak heldutasun gehiago dakar.

Pozik nago egin ditudan azken urteekin eta nola eman dudan guztia aurrera.

Tokion esperientzia hartzea zen helburua eta bi diploma ekarri zenuen, Parisen podiuma duzu buruan?

Bai eta ez. Azkenean Tokiora bezala noa. Nik badakit zein gaitasun ditudan, nora iritsi naiteken baina horrek ez du ezer esan nahi. Parisera joan behar naiz, aurkariekin lehiatu eta borroka horretan postu batzuk lortu.

Nire pentsatzeko era nahiko antzekoa da. Nire esku dagoena egin dezaket, baina beste guztia ezin dut kontrolatu. Ikaskuntza gehiago ditut, baina lasaitasuna ere. Badakit zer egin dezakedan eta zer ez. Besteek zer egiten duten, ez daukat kontrolik.


Gazteak indartsu daudela erakutsi dute Europako txapelketan; 13 urteko Iona Winnifrih britaniarrak domina ugari irabazi zituen. Aurkari gorrak izango dituzu jokoetan?

Hara iritsi eta egin behar dira gauzak. Aipatu moduan, nik badakit zertarako gai naizen, baina ez dakit haiek nola egingo dioten aurre lehiari.

"Nire esku dagoena egin dezaket; beste guztia ezin dut kontrolatu"

NAHIA ZUDAIRE BORREZO IGERILARIA

Tokio eta Paris; Paralinpiar Jokoetan lehiatuko da berriro ere Buruntzaldea IKTko kidea. Abuztu amaieran egingo du jauzi La Defense Arenako igerilekura



Nahia Zudaire Borrezo, Europako txapelketako brontzezko dominarekin. N. ZUDAIRE

Gazteak dira eta euren lehen aldia da jokoetan. Ez naiz asko zentratzen besteek zer egin dezaketen pentsatzen, ez dute ezer egingo niregatik. Niretzako entrenatzen dut, niretzako lehiatzen dut. Parisera iritsi, egin behar dudana egin eta horrek emaitza bat ematen badu, ondo, eta, bestela ere, ondo.

Emaitzak ez dira dominak bakarrik, gauza gehiago dago jokoan. Urtebete ez da postu batean laburtzen.

Tokiora ezin izan zen familia joan zu ikustera. Baina oraingoan bertan izango dira?

Bai, joan daitezke ikustera eta horregatik ere pozik nago.

Iaz Axa Ligako probak izan zenituen eta asko lehiatu zinen, baina aurten gutxiagotan parte hartu duzu txapelketa batean. Zergatik?

Aurten aldaketa bat egin dugu eta altuerara igo naiz entrenatzen. Sierra Nevada izan naiz lanean. Entrenamenduetan zentratu gara gehiago, lehiaketetan baino.

Ez dut lehiatzeko aukera asko izan. Azaroan lehiatu nuen eta gero otsailera arte ez dut berriro igeri egin lehiaketa batean.

"EMAITZAK EZ DIRA DOMINAK BAKARRIK. URTEBETE EZ DA POSTU BATEAN LABURTZEN"

Eta garai horietan entrenamendu saioak egiten saiatu gara. Helburu nagusia Parisko Paralinpiar Jokoak prestatzea izan da eta bakoitzak erabakitzen du nola egin. Nik internazionalki lehiatzea erabaki dut. Nazionalki ere aritu naiz, baina batzuetan gaixo egon naiz eta ez dut hainbeste konpetitu.

2023ko abuztuaren Manchester-eko Munduko Txapelketan plaza atera zenuen, baina ez zara lasai egin orain arte...

Manchesterren herrialdearentzat plaza atera genuen, ez zen niretzat. Azaro amaiera arte ez nintzen lasaitu. A gutxienekoa egin nuen, baina nik ez banu erakutsi plaza hori merezi nuela, ez nintzateke Parisen egongo.

Manchesterren, gainera, bi prozesu ezberdin pasa behar izan nituen: batetik, herrialdearentzat plaza lortzea, eta, bestetik, nire maila zehazteko mediku azterketa bat egitea.

Mediku azterketa aipatu duzula, mailarekin gorabeherak izan dituzu azken urtean, ezta?

2022an, Tokio eta gero pasa nuen mediku azterketa eta mailaz igo ninduten. Hiru edo lau hilabete egin nituen nirea ez zen kategoriatan, larritasun txikiagoko batean. Beste marka batzuk eskatzen zituzten eta askoz zailagoa niretzat horiek lortzea.

Aurten ere egin behar izan dut eta nire mailara itzuli naiz. Gainera, pasa arte ez zen ezer ziurra. Nahiz eta gutxienekoa egin, nire elbarritasuna txikiagoa zela esanez gero, ezingo nintzateke Parisera joan. Guztia airean egon da horregatik. Faktore asko zeuden.

Europako txapelketan hainbat domina jantzi zenituen. Nola joan zen lehia?

Ondo. Ez nekien nola iritsiko nintzen hitzordura. Sorbalda pixka bat ukitua nuen garai horretan eta dudak nituen nola erantzun zuten, lehiaketako karga horri nola egingo nion aurre, hainbeste egun... Baina gorputzak ongi erantzun zuen, eta ondo. Ze, azkenean, beldurrez joan nintzen eta azkenean oso ondo joan zen. Eta, perspektiban, 100 m. bularreko markarekin oso gustura; denbora ona dela uste dut.

Jokoak eta gero, atsedean hartzeko garaia iritsiko da?

Bai, noski. Lau urteko prestaketaren ostean, hilabetez atsedendaldia izango dut.

Lugañenek, bandera guztiak lortzeko erronka

A Coruña-ko uretan (Galizia) jokatu dira Euskotren Ligako jardunaldiak. Ribeiran Tolosaldearekin borrokatu behar izan du Donostia Arraun Lagunak-ek; Boiron, aldiz, nagusi izan da. Hondarribia Bertako igogailuak-ek ezin izan du bigarren txandan lehiatu, bi saioetan bosgarren sailkatu da

Txintxarri

Euskotren Ligako jardunaldiak lehiatu dira Galizian hilaren 20an eta 21ean. Aiora Belartietan eta Nahia Goenaga herritarrek kide dituen Lugañenek bandera guztiak eskuratzeko erronka onartu du. Bi bandera gehiago gehitu ditu poltsara; zortzitik zortzi ditu eta ligako buru da nagusitasunez.

Ribeiran Bandeira Barbanza Arousa jokatu zen eta Tolosaldeak lana eman zion Donostiako ontziari. Hasieratik bi traineruak nahiko paretsu ibili ziren eta ziabogan lau segundoko alde izan zuten. Lehia horretan Orio ere sartuko zela zirudien arren –ziaboga egiteko Lugañene baino hiru segundo gehiago behar izan zituzten mirotzek–, bigarren luzean tolosarrak eta donostiarrak izan ziren estropadako buruan lehia bizian.

Azken metroetan Donostia Arraun Lagunak alde txikia ireki zuen eta 11.06,40ko markarekin bandera eskuratu zuen. Tolosaldeak sei segundo gehiago behar izan zituen.



Donostia Arraun Lagunak-eko kideak, bi banderak ospatzen. DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

Hurrengo egunean, V. Bandeira de Traíneiras Feminina Rianxeira lehiatu zen Boiron eta Lugañenek hasieratik argi utzi zuen ez zuela aurkaririk nahi. Estropadako buru jarri eta erritmoa mantenduz, 11.01,55eko denborarekin irabazi zuen. Bigarren Donostiara izan zen, ia hamahiru segundora.

Bosgarren postuan

Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribia Bertako Igo-gailuak, aldiz, bigarren txandan

lehiatzeko borrokan ari da jardunaldiz jardunaldi.

Galiziako bi saioetan lehen txandako garaile nagusia izan arren, ezin izan zituen bigarren txandako denborak gaintitu –11.21,48 eta 11.29,00 egin zituen, hurrenez hurren– eta bietan bosgarren postuan amaitu zituen lehiak. Sailkapen orokorrean ere postu berean dago.

Hilaren 27an eta 28an, berriro ere, Bizkaian izango dira lehiak Getxo eta Lekeition, zehazki.

ASTE BURUKO HITZORDUAK

PALA

S. ANA TXAPELKETA, FINALA

Santa Ana Pala txapelketako hirugarren postua eta finala lehiatuko dira.

Ostirala 26. 17:30 eta 18:30. Loidibarren pilotalekuan.

TXIRRINDULARITZA

V. TROFEO E. ROBERT INNOVA

Caja Rural-Alea taldeko Beñat Carbayeda herritarrek V. Trofeo Electricidad Robert Innova proba lehiatuko du.

Larunbata. 15:30. Villatuerta, Nafarroan.

IGERIKETA

GETARIA-ZARAUZ ZEHARKALDIA

Herriko hainbat igerilarik Zarautz-Mollarri eta Getaria-Zarauz itsas zeharkaldietan parte hartuko dute.

Larunbata eta igandea. 11:00/11:30. Zarautz/Getaria.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko bosgarren jardunaldia jokatu da. Bost lasterketa izango dira.

Igandea. 17:30. Hipodromoa, Donostian.

AUTOMOBILISMOA

CHANTADA IGOERA

Aitro Manso gidariak AUTOhebbdo SPORT Espainiako txapelketako Chantada igoeran parte hartuko du.

Larunbata eta igandea. Chantada, Lugo, Galizian.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Herritarrek kide dituzten Donostia Arraun Lagunak zein Hondarribia Bertako igogailuak Estropaden XVI. Ikurriña - J.A. Agirre Lehendakariaren XX. Omenaldia estropadari aurre egingo diote.

Larunbata. 17:25. Getxo, Bizkaian. Donostia Arraun Lagunak zein Hondarribia Bertako igogailuak ontziek XIII. Euskotren Bandera lehiatuko dute.

Igandea. 11:25. Lekeitio, Bizkaian.

OLINPIAR JOKOAK

ESLALOM, K-1

Maialen Chourrout herritarra ur bizietako eslalom K-1 proban lehiatuko da.

Larunbata eta igandea. Vaires-sur-Marne, Frantzia.

KAYAK-KROS

Maialen Chourrout herritarra ur bizietako kayak kros proban lehiatuko da.

Abuztuak 2-5. Vaires-sur-Marne, Frantzia.

PARALINPIAR JOKOAK

IGERIKETA

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek lau proba lehiatuko ditu.

Abuztuak 29-irailak 7. Nanterre, Frantzia.

Alex Saleta errugbi jokalaririk Tongaren aurka jokatu du

Espainiako Errugbi Selekzioak 2027 urteko Munduko Txapelketako sailkapena prestatzeko Ozeaniara egin du bidai; Alex Saleta herritarra taldeko kide izan da. Bi neurketa jokatu dituzte lehoiek.

Lehen neurketa hilaren 13an izan zen Samoako Apia Park zelaietan. Ederki borrokatu arren,

34-30 gailendu zen Samoako taldea. Saleta ez zen jokalaririk zerrendan sartu.

Hilaren 19an, Tonga izan zen aurkari Nuku'alofako Teufaiva estadioan. Herritarra aulkian izan zen eta bigarren zatian atera zen zelaira. Defentsa sendotzeko atera zen eta lan ederra egin zuen Beltzak RTko harrobiko jokalaririk etxeko taldearen erasoak geratu. Lehoiek 20-29 irabazi zuten.

Mendizabal-Urruzola eta Arteaga-Urria, finalean

Santa Ana Pala txapelketako finalerdian jokatu eta finaleko zein hirugarren postuko aurkariak erabaki dira

Txintxarri

Hilaren 22an, astelehenarekin, Santa Ana Pala Txapelketako finalerdian jokatu ziren. Loidibarren pilotalekura bertaratu ziren herritarrek ederki gozatu zuten.

Lehen finalerdian, Jagoba Mendizabal eta Julen Urruzolak Luken Carbayeda eta Eneko Ortiz izan zituzten aurrez aurre. Mendizabal eta Urruzola ligako

buru izan ziren eta zergatia erakutsi zuten finalerdian. Carbayeda-Ortizek ez zuten aukerarik izan. 30-9 gailendu eta finalerako lehen txartela eskuratu zuten.

Bigarren norgehiagokan Xabi Arteaga eta Haritz Urria, Oier Odriozola eta Eneko Sarasolaren aurka borrokatu ziren. Lehia handia izan zen bi bikoteen artean. Baina Arteaga-Urria



Santa Ana Pala txapelketako bigarren finalerdiko irudia. TXINTXARRI

bikoak tantoak ederki amaitzen jakin eta 30-19 irabazi zuen partida finalerako bigarren postua lortuz.

Finalaren eguna

Gaur, hilaren 26a, Santa Ana eguna dugu eta arratsaldeko 17:30etik aurrera, txapelketako

hirugarren postua eta finala lehiatuko dira Loidibarren pilotalekuan.

Lehenik Carbayeda-Ortiz eta Odriozola-Sarasola bikoteak izango dira kantxan hirugarren postua eskuratzeko helburuarekin.

Ordubete geroago, finala hasiko da. Txapelaren bila, Mendizabal-Urruzola eta Arteaga-Urria bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Lehia hasi baino lehen, Erketz EDTko kideek agurra egingo diete bikoteei.

Udalak jakitera eman duenez, lehen postuetako kideez gain, parte hartzaile guztiek izango dute saririk.

Hautagaien erakustaldia eta ezustekoak pistan

Udako denboraldiko laugarren jardunaldia jokatu dute hilaren 21ean. Urrezko kopako hautagaiak lehian ikusteko aukera izan dute zaletuek; 'Il Decameron'-ek sari nagusia hirugarrenez irabazteko prest dagoela erakutsi du, eta, 'Velerin'-ek, bere balioa

Txintxarri

Hilaren 21eko jardunaldia ezohiko ordutegian jokatu arren, zaldi lasterketen zaletuek urrezko kopa prestatzeko bi lasterketaz gozatu ahal izan zuten Hipodromoan eta ezusteak ere izan ziren bigarren eta laugarren lasterketan.

European Breeder's Fund sariarekin hasi zen saio berantiarra. *Bulnes-Vaclav Janáček* eta *Mini George-Ricardo Sousa* bikoak lehia bizian izan ziren lasterketan zehar. Azken zuzengunean, lehenek erritmoa aldatu eta saria eskuratu zuten.

Jardunaldiko lehen ustekabea *Maimouna-k* eta *Vicky Alonsok* eman zuten Emakumeok mugimenduan sarian. *Maimouna-Alonso* erraztasun handiz lasterketako faborito handiei nagusitu zitzaizen.

Urrezko Kopa prestatzeko lehen lasterketa, Carrus taldea saria izan zen. *Il Decameron*-ek, Ricar-



Il Decameron-Sousa, helmugan. ISAAC FARRE F.

do Sousak gidatuta, bere hirugarren Urrezko Kopa eskuratzeko prest dagoela erakutsi zuen. Hasieran buru hartu zuen, lehen itzulian zuzengunean *Lisicle-k* hartu zuen taldea zuzentzeko papera. Taldearen barrualdean lasai mantendu zen *Il Decameron* azken 400 metroak iritsi arte. Erdigunera joan eta gogor jo zuen eraso. Aldea ireki eta bakarrik iritsi zen helmugara.

Arratsaldeko bigarren sorpresa Biarritzeko hipodromoan sarian suertatu zen. Lore Toki zalditegiko *Urraca-k* eta Lucie Castillon jockey gaztea azken zuzengunean taldetik atera eta gainerako aurkariak aurreratu zituen garai-pena erdiesteko.

Azken saria Gipuzkoa Kiroiak saria izan zen. Abuztuaren 15eko proba nagusiko hautagaiak ikusi ahal izan ziren horretan ere eta Ricardo Sousak gidatutako *Velerin*-ek bere balioa erakutsi zuen.

Speedy Record-ek eta Nicolas de Julianek lasterketako pisua eraman zuten arren, *Velerin*-Sousa bikoak bere momentua aurkitzen jakin zuten. Hirugarren postuan mantendu zen eta 400 metro faltan, lehenik faboritua zen *Azkar* eta gero *Speedy Record* gainditu zituen tartea ireki eta nagusitasunez helmuga bakarrik igarotzeko.



GORKA REDONDO

Redondo, Espainiako seigarren

Ostadar SKTko Eider Redondo atleta gazteak 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartu du Lleidan (Katalunia). Hexatloian proban lehiatu da eta seigarren postuan amaitu du. Sei probari egin die aurre gazteak txapelketan: 100 m. hesi, altuera, pisu jaurtiketa, luzera jauzia, xabalina jaurtiketa eta 600 m. lasterketa. 100 metro hesi eta luzera jauzian lehen postuetan izan da Ostadarreko kidea; hirugarren (15,70) eta bigarren (5,49 m.) izan zen hurrenez hurren. Guztira 3.422 puntu batu ditu.

Kirol instalazioen itxiera teknikoak egingo dira

Kirol instalakuntzetako itxiera tekniko egunak jakitera eman ditu Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak.

Egun horietan urteroko derri-gorrezko mantentze eta garbiketara lanak egingo dituzte langileek.

Michelin Kirol Guneak hilaren 21ean itxi zituen ateak eta abuztuaren 5ean, berriro ere, erabiltzari izango da.

Maialen Chourraut Kiroldegia, aldiz, hilaren 28tik abuztuaren 11ra egongo da itxia. Abuztuaren 12an sartu ahalko dira erabiltzaileak.

Bi instalakuntzetan udako ordutegiarekin jarraituko dute lanean.

Buruntzaldea IKTko infantilek, final bat eta marka berriak

Itsas zeharkaldiko denboraldian, Jurgi Sukunza herritarra garaile izan da Ondarroako probako junior mailan

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Ibon Elola, Mario Amantegi, Iñaki Garcia eta Oihan Matute infantil mailako Espainiako txapelketan izan ziren lehian, Sabadell-en (Katalunia). Laukoteak 4x200 m. erreleboa lehiatu zuen eta Iñaki Garcia eta Oihan Matutek ere bakarka egin zuten igeri.

Garciak lau probari egin zien aurre, 50 m. libreko finalean izan zen lehian eta proba horretako (24,83) zein 50 m. (29,77) eta 100 m. (01.03,31) bizkar lehietan bere marka pertsonalak ondu zituen. 200 m. libre saioan, aldiz, 02.04,17 egin zuen. "Azkarregi hasi zen eta zaila egin zitzaion proba modu

onean amaitzea", azaldu dute igeriketa taldeko ordezkariek.

Matutek, aldiz, 400 m. libre proban 04.37,00 marka egin zuen. Buruntzaldea IKTko prestatzaileek adierazi dutenez, "lehen esperientziako urduritasunak eragina izan zuen haren gain eta ez duen gustura bukatu proba".

Erreleboari dagokionez, euren serieko hirugarren postua eskuratu zuen laukoak 08.26,72ko denborarekin. Lehen postuan Matute izan zen eta 200 m. libreko bere marka pertsonala hobetu zuen, 02.07,27.

Igeriketa taldeko prestatzaileek igerilariarentzat horrelako txapelketa batean egoten den maila



Buruntzaldea IKTko gazteek familiak eta prestatzaileak izan zituzten lagun. BURUNTZALDEA IKT

altua ezagutzeko baliagarri izan dela adierazi dute. Eta esperientzia horren ostean, oporretako garaia iritsi zaie guztiei.

Euskal Herriko txapelketa

Ordiziako Majori kiroldegian, Absolutu mailako Euskal Herriko txapelketa jokatu zen. Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek lau

proba egin zituen lehiaketan. Paralinpiar Jokoak prestatzen ari da kidea eta honakoak izan ziren bere markak: 100 m. libre, 01.12,19; 200 m. libre, 02.36,98; 800 m. libre 10.34,09; eta, 100 m. bular, 01.34,00.

Itsas Zeharkaldiak

Igerilekuko denboraldia amaituta, udan itsas zeharkaldien txan-

da iritsi da. Lasarte-Oriako ordezkariek Ondarroan (Bizkaia) eta Getarian izan dira lehian eta lehenean podiumean izan ziren.

Hilaren 20an, Ondarroako Elena Fernandez Iturrioz Oroimezkoa den 37. itsas lasterketa jokatu zen. 300 bat igerilarik parte hartu zuten eta Kairoscore taldeko Jurgi Sukunza herritarrak junior mailako garaikurra eraman zuen, 19.23 eginez. Saiklaren orokorrean ere lehen postuetan izan zen, laugarren. Aimar Sukunza anaia zazpigarren izan zen (20.54) eta Aitor Iurramendi herritarrak 28,06 behar izan zituen ibilbidea egiteko.

Hurrengo egunean, aldiz, Getarian izan ziren herriko ordezkariek. Marka onena Juan Vicente Martín Bañosek egin zuen, 26.00. Iurramendik (30.37) berak ere parte hartu zuen, baita Yepa! taldeko Laura Arroyok (28.39) eta Trinkoko Asier Gorostegik (29.30) ere.


ZORION AGURRAK



Lur
Zorionak polita, 4 urte handi dagoeneko, muxu potolo pilloa etxekoan partez.



Malen
Zorionak printzesa!!! Iritsi da zure urtebetetzea!! Oso oso ondo pasa !! 6 muxu potolo familia guztiaren partez.



Haritz
Zorionak Haritz! Ederki ospatuko dugu zure eguna. Muxu potolo bat etxekoan partez!



Nerea
Zure urtebetetze eguna dela oroitarazi digu Santa Ana...ez ginen ahaztuta, e! Egun on-ona izan!!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldeu deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

17 urteko neska euskaldun bat naiz, Batxilergoa egiten ari dena Zientzia alorretik. Udan zehar haurrak zaindu eta eskolak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

21 urte ditut eta udaran haurrak zaintzeko lan bila nabil. Interesa izanez gero harremanetan jarri zaitezke, 634 41 95 78.

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldean, garbiketa lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informea. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/
zorionagurra.
- Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaileekin ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 35 10 WhatsApp zenbakira.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 26	LASA
LARUNBATA, 27	GIL
IGANDEA, 28	GIL
ASTELEHENA, 29	URBISTONDO
ASTEARTEA, 30	ACHA-ORBEA
ASTEAZKENA, 31	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 1	URBISTONDO

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

Oporretara goaz!

Hurrengo TXINTXARRI aldizkaria irailaren 9an kaleratuko dugu. Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:

txintxarri@ttakun.eus • 688 68 35 10



txintxarri

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro eta Ander Hazas.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 26

ZUBIETA Jaiak

Jai giroan murgilduta dira Zubietako bizilagunak. Jai batzordeak honako egitaraua prestatu du:

06:00etan, oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Alaitz trikitilariak lagunduta.

14:30etan, oilasko biltzaileen bazkaria.

Zubietan, 06:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Santa Ana eta San Joakin eguna ospatzeko egitaraua prestatu dute Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean, goizetik hasita:

11:00etan, Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ondoren, luntxa egingo dute alboko plazan.

12:00etan, Erketz EDTko kideen dantza saioa, Santa Ana karkaban.

18:30etan, parodian parte hartuko duten kideen desfilea, herrian barrena. Hauxe da egingo duten ibilbidea: Jalgi Kafe Antzokia, Tajamar biribilgunea, Kale Nagusia (Ilargitik Arkuperaino) eta Okendo plaza, Gure Etxea taberna paretik sartuta.

20:00etan, Santa Ana eguneko parodia umoretsua, Okendo plazan. Antzezlanari ekin aurretik Islada



LASARTE-ORIA Musika

Hilari amaiera eramateko, Del Toro Blues Band musika taldeko bi musikariek emanaldia eskainiko dute Jalgi Kafe Antzokian. Antolatzaileek iragarri dute

19:30etan hasiko dela emanaldia. *Jalgi Kafe Antzokia, hilaren 27an 19:30etan.*

Ezkutatuak taldea omenduko dute antolatzaileek eta bertso batzuk abestuko dizkio Lierni Rekondo lasarteoriatarak.

Lasarte-Orian barrena, 11:00etatik aurrera.

LARUNBATA 27

ZUBIETA Jaiak

Jai giroan murgilduta dira Zubietako bizilagunak. Jai batzordeak honako egitaraua prestatu du:

10:00etan, Street Boulder eta ping pong-a plazan.

12:00etan, sagardo eta pintxo dastaketa, plazan.

14:00etan, jubilatuen bazkaria Joko Garbi elkartearen.

15:00etan, bertso bazkaria. Eli Pagola eta Eñaut Martikorena ariko dira koplaka. Ondoren, Gurdi Rock

17:30etan, Desafiyua. Jarraian, buruhandiak.

19:00etan, sardina eta piper jatea, plazan.

20:00etan, bingoa.

23:00etan, kontzertuak: Trikidantz, Band Sound System eta DJ Txolas.

Zubietan, 10:00etatik aurrera.

IGANDEA 28

ZUBIETA Jaiak

Jai giroan murgilduta dira Zubietako bizilagunak. Jai batzordeak honako egitaraua prestatu du:

16:30etan, patata tortilla lehiaketa.

19:00etan, bingoa. Ondoren, lbeby BeatBoxer-en emanaldia.

19:30etan, krokepote, txoznan. *Zubietan, 16:30etik aurrera.*

ASTELEHENA 29

ZUBIETA Jaiak

Jai giroan murgilduta dira Zubietako bizilagunak. Jai batzordeak honako egitaraua prestatu du:

10:00etan, jolasen hasiera.

14:00etan, umeen bazkaria.

Bakoitzak bere bazkaria eraman behar du, eta antolatzaileen kontu izango da postrea eta sorpresa.

16:00etan, jolasen jarraipena.

Ondoren, txokolate jana eta buruhandiak. Bukatzeko, diskofesta.

Zubietan, 10:00etatik aurrera.

ASTEARTEA 30

ZUBIETA Jaiak

Jai giroan murgilduta dira Zubietako bizilagunak. Jai

batzordeak honako egitaraua prestatu du:

16:00etan, mus txapelketa. Izen ematea 15:30ean egingo da.

18:00etan, herriko gaztetxoan Yoko Garbi erakustaldia, Errebote plazan.

00:00etan, kontzertuak: lthaka, Xiberoots eta DJ Fantasia.

19:30etan, krokepote, txoznan. *Zubietan, 16:00etatik aurrera.*

ASTEAZKENA 31

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasartearra elkarteak Bazkidearen Eguna aurrera eramango du bere 51. urteurrena ospatzeko. Luntxa, hildako bazkideei aitortza, trikipotea eta bazkaria antolatu ditu zuzendaritza taldeak. Ekimen horietan parte hartu nahi duten bazkideek hilaren 25a baino lehen izena eman behar dute.

Lasartearra elkartearen egoitza (Erribera kalea, 10), egun osoz.

ZUBIETA Jaiak

Jai giroan murgilduta dira Zubietako bizilagunak. Jai batzordeak honako egitaraua prestatu du:

10:30etan, meza.

11:30etan, zubietarren arteko errebote partida.

14:00etan, zikiro jatea.

18:30etan, herri kirolak.

Iparaldekoa jokoetan Tubi eta Jon Loiola ariko dira; harria jasotzen, berriz, Jokin Eizmendi.

23:00etan, jaien amaiera traka eta suziriarekin.

Zubietan, 10:30etik aurrera.

SANTA ANA 2024

uztailak 26

11:00etan
Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ostein, luntxa.

12:00etan,
Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.

18:30etan,
Desfilea herrian barrena

20:00etan,
Santa Ana parodia.
Okendo plazan*

* Eguraldi txarra eginez gero Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo da.

BARNE-DISEINUA

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

KOMERTZIO TXIKI HERRI MANDI LASARTE-ORIA

GREMIOAK

IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIEPQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA



- Komertzial instalazioak
 - Beira bikoitza
 - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

32. URTEURRENA
ISU



PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



ELECTRICIDAD ARREGUI



600 85 75 86
www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Etxeko sabairako haizagailuak!

- Argiztatuak
- Intentsitate erregulagarriekin
- Distira handiko LEDak
- Eredu ezberdinekin

bulegoko eskuko haizagailua

- 3 abiadura
- USB bidez kargatzen da